

NEGUKO KATALOGOA 2021



AURKIBIDEA

KUKU! EMOZIO BILDUMA (+2)	2-6
KIMU BILDUMA (+5)	7-9
ARGITXO	10-13
OLENTZERO	14
MUSIKA	15
+ 0 URTE	16-17
+ 3 URTE	18-21
+ 6 URTE	20-25
+ 8 URTE	26-31
+ 10 URTE	32-33
ZIENTZIALARIAK	34-35
EZAGUTU EUSKAL HERRIAREN HISTORIA	36-37
XABIROI KOMIKIAK	38-40

KUKU!

EMOZIO BILDUMA (+2)

Beldurra, haserrea, nazka, poza, sorpresa eta tristura, oinarrizko sei emozioak ezagutzeko, erregulatzeko eta besteenak hobeto ezagutzeko bilduma da Kuku!



SORPRESA!

Manexek ezusteko berri bat jasoko du, eta horrek hainbat sorpresa eta sentsazio berri ekarriko dizkio.

14,95€



HASERREA

Mireiak inurriak gutxietsi eta bortizki zanpatu ditu. Baina inurriek ere, txikiak eta ia ikusezinak izanagatik, sufritzen dute, eta haserretzen dira.


14,95€



IRRIMOLA

Poza biribila da, barruan daramagun zurrumbiloa. Leunki ateratzen da maiz. Beste batzuetan, ordea, xirimolaka kanporatzen dugu, irri eta algaraka.

19,50€



NAZKATASUNA

Zer da nazka? Noiz sentitzen dugu? Gauza berdinek ematen al digute nazka? Denok sentitzen al dugu berdin?


14,95€



PUTZ EGIN ETA IKUSIKO DUZU

"Beldurra zure barnean dago, birrikak eta sabelaren artean", esaten zidan amonak. "Hortik atera behar duzu nolakoa den ikusi ahal izateko".

14,95€



TRISTURA

Nahigabeak har dezake edozeinen gogoa oharkabeen. Baina badago norbait hemen lagunari bizipozaz eta alaitasunaz hitz egiteko.

14,95€

EMOZIO BILDUMA (+2)

Oinarrizko emozioak ezagutzeko bina ilustrazio topatuko dituzu horma-irudi bakoitzean. Elkarriketarako, egoera eta gertakizunak partekatzeke, baita emozioak eta sentimenduak bizitzeko eta adierazteko ere erabilgarriak dira.

84x21 cm-ko 2 horma-irudi. 14,95€ bakoitzak.



**FIRIN-FARAN
KALEJIRAN**
POZA



**OINAK LURREAN
PIL-PILEAN**
TRISTURA



**TIKILI-TOKOLO
ZIRKUAN**
BELDURRA





**PLASTA-PLASTA,
PARRASTA!**
NAZKA



**BAT-BATEAN,
ZAST!**
SORPRESA



TXISPUN BURRUN!
HASERREA





EMOZIO-TXARTELAK

Bi alde dituzte emozio txartelek. Batean, emozioak identifikatzen laguntzen duten aurpegi-adierazpenak agertzen dira. Bestean, berriz, istorioak sortzeko aukera ematen duten egoera irekiak. Bakarka nahiz taldean jolasteko aukera eskaintzen du.

12x12 cm-ko 18 txartel 2 aldeetatik

16,95€



EMOZIOEN MEMORIA-JOKOA

Oinarritzko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, eta horien 3 aldaera eta intentsitate-maila bereiziz, forma biribila duen memoria-jokoa (18 fitxa-pare).

16,95€



EMOZIOEN DOMINO-JOKOA

Oinarritzko 6 emozioen aurpegi adierazleak ardatz hartuta, erlauntza forma duen domino-jokoa (28 fitxa).

16,95€

BILDUMA (+5)

Konta-kontari karta jokoekin haurra jolasten ari den bitartean, kopuruen kontaketa eta grafiaren arteko loturak egin ditzake. Gainera, ohiko karta-sortekin egin daitezkeen jolasak ere egin daitezke.



KONTA-KONTARI 1

13,00€



KONTA-KONTARI 2

13,00€



HIZTEGI JOLASTIA +5

Alfabetoko letra bakoitzak du bere poema eta marrazkia. Jolaserako hiztegia da, eta jolas eginez irakurtzen trebatzeko ere bai.

10,50€



BADAUZKAT NIRE ZULOTXOAN... +5

Negua pasatzeko janaria biltzen hasi da urtxintxa. Istorioan zehar etengabe presente egonda ere, irakurlea sorpresaz hartuko duen beste protagonista bat bada...

12,50€



NIRE GORPUTZEAN BIZI NAIZ +5

Poema, asmakizun eta igarkizun sorta da. Liburuak jolas egiteko gonbata luzatzen die haurrei.


8,50€



GALDU DENA, AZALDU DADILA! +5

Hirian desagertu dira Olaiaren ama, Ekhiren aita, Lukaren amonak eta Miaren osaba. A zer despistatu-kuadrilla! Eta orain zer? Nondik hasi bila?

12,50€



LOINATZEN LOA +5

Ondoezik esnatu denez, Loinatz etxean gelditu da, ohean goxo-goxo. Etxeko tramankuluek, ordean, hankaz gora jarriko dute Loinatzen loa.

12,50€



FAMILIA XELEBRETA +5

Familia guztiak dira xelebreak. Baina xelebreetan xelebreena Erramun Babarrun, Mariaje Potaje, Serafin Mokofin eta Arantxa Balantxarena.

8,50€



LETREN JOLASLEKUAN +6

Hodeiri letrak kostatu egiten zaizkio; ez dira bere lagunak. Ametsek letren jolaslekura eramango du eta, jolasaren bidez, letrekin adiskidetzen lagunduko dio.

8,50€



HANKA, MOKO ETA BUZTAN. ANIMALIEKIN DANTZAN +6

Asmazan, asmazak... Zer ote dago liburu honen baitan? Animalia bitxi ugari, hanka, moko eta buztan...

10,50€



3-7

ARGITXO PAREAK ETA DOMINOAK

Kartoizko pare-jokoa eta dominoa. Albo bietatik erabilgarria: aurkakoen dominoa eta kantitateena.

Pare-jokoa: 26 fitxa (5x5 cm).

Dominoa: 28 fitxa (6x12 cm).

25,00€



3-7

ARGITXOREN ALFABETOAK

Alfabetoko letrak ezagutzeko, bakoitzaren grafia desberdintzeko, eta dagokion irudiarekin erlazionatzeko jolasa. Jolasteko era ugari, barruan dagoen argibide-orrian.

21,00€



4-7

ARGITXO HITZAK IRAKURTZEN

Lupa magikoaren laguntzarekin letrak ezagutzen eta hitzak osatzen ikasteko jolasa.

21,00€



4-8

ARGITXOREN LEHEN HITZAK

Irakurketa-idazketa prozesuaren lehen pausoak ematen laguntzeko jolasa. 22 txartel, taula (35x35 cm) eta 100 plastikozko letra-fitxa.

23,00€



+5

ARGITXO EUSKAL HERRIAN

Argitxo ere ezkutatu egin da irudian, Euskal Herriko hainbat tokitan. Aurkitu ezazu!
40x28 cm-ko puzzlea; 50 zati.

20,00€



+6

URKATUA ARGITXOREKIN JOLASEAN

Urkatuan jolasteko 2 euskarri, 72 letrako
2 bilduma eta euskara-ingeles hiztegia.
Euskaraz nahiz ingelesez jolas daiteke.

26,00€



4-8

ARGITXO ETA GURE GORPUTZA

Gorputz-atalak, hezurrak eta
organoak jolastuz ezagutzeko.
30 zatiko 2 puzzle (albo bietatik);
45x58cm puzzle bakoitza.

26,00€



ARGITXO PANPINA

Argitxoren panpina biguna. Lotara eramateko aproposa. Jolasean ibiltzeko lagun maitagarria.

27,00€



ARGITXO POLTSA

Neurria: 24x28 cm

Argitxo protagonista duen poltsa; janariak, arropak, eskola-materiala edo beste edozer eramateko. Motxila bezala eraman daiteke.

2,00€



ARGITXO EDALONTZIA

Argitxoren irudia duen plastikozko edalontzia. Edari hotzak nahiz beroak hartzeko. Etxerako, ikastolarako... Mikrouhin-laberako baliogarria.

1,00€



3-7

ARGITXO ETA OLENTZEROREN OPARIA

Argitxok, ezustean, Olentzeroren bisita izango du. Zer gertatuko ote da?

4,00€



3-7

ARGITXO ETA ARLOTEA

Argitxok lagun berri bat du, ipuinak kontatzen dituen arlotea. Zer jazoko ote?

4,00€



3-7

ARGITXO ETA IPOTX GALTZABERDEA

Argitxok Patrizio Mackakorro galtzaberde irlandarra aurkitu du hondartzan, botila baten barruan.

4,00€

OLENTZERO



NIRE AMA OLENTZERO DA

Beñatek arreatxo bat eskatu ohi dio Olentzerori urtero, baina, horren ordeaz, beste opari bat ekartzen dio beti: tren elektrikoa, baloia, banpiroen mozorroa... Aurten, ordea, gauzak desberdinak izango direla agindu diote.

7,95€



IKAZKINA OLENTZERO BIHURTU ZENEKOA

Bazen behin ikazkin bat, hartzea baino, ematea nahiago zuena. Behin batez, mendia utzi eta hirira jaitsi zen ikazkin hura... Ipuin miragarri bat, ametsetako magia istorio sinesgarri baten bidez kontatua.

7,95€



OLENTZERO PAMPINA

Euskal umeentzat hain ezaguna den pertsonaia pampina bihurtua.

Handia	10,00€
--------	--------

Txikia	5,00€
--------	-------



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI ESKUTITZA

Eskutitza idazteko oinarria eta gutunazala.

1,50€



OLENTZERO POSTALAK

Olentzero eta Eguberrietako postalak. 6ko lotea.

2,50€



EGIZU LO. LOTARAKO KANTAK

Sehaska kantuen bilduma. Kantari eta diska desberdinetatik hartutako kantuak.

15,95€



BAKARRIK ETA LIBRE...

14 kantarik Imanol Urbietaren hainbat kantu moldatu eta beren erara kantatuak omenaldi moduan.

14,00€



MAITTE-MAITTE

Disko-liburu honek haurra jaio eta urtebetera bitarteko bizipenak eta etxeko sentimenduak eta emozioak jaso nahi ditu.


15,50€



TXIKIA IZANIK...

Haur kantuen bilduma. Txiki txikitatik entzuten dituzten kantuak biltzen dira bertan, kantari desberdinek abestuak.

13,50€



HANDITZEN, HANDITZEN

Haurrentzako prestaturiko bilduma. Kantu ezagunak, kantagarriak gurasoei batera abesteko.

13,50€



ASKO MAITE ZAITUT, NIK

Euskal kantu tradizionalak haurrentzat, euskal kantagintzaren transmisiorako oso egokia.

13,50€



BI BELARRI ENTZUTEKO...

Haurren abestiekin eta kantu tradizionalekin osaturiko bilduma. Umeek gure kantutegia ezagutzen joan daitezten ondo pasatzen duten bitartean.

13,50€



EMOZIOAK HATZ PUNTETAN

Zure hatz txikiak urduri daude. Elkarren kontra igurtziz, jauzika eta hozkaka dabilta... Ez dago zalantzarik, festarako gogoia dute zure hatz txikiak! Oso trebeak dira emozioak adierazten. Nola dakidan hori? Nire hatz txikiak esan didalako.

13,95€



KU-KU! NOR ZARA ZU?

Liburu dibertigarri honek zulotxo harrigarriak ditu. Begiratu! Ea asmatzen duzun zer animalia dauden zulotxoaren atzean! Txundituta geratuko zara. Animaliazale txiki guztientzat.

10,00€



NANE ETA NUNO. BURUTIK BEHATZETARA

Nanek eta Nunok beren gorputzari buruz ikasiko dute. Burutik behatzetara! Haurren eguneroko bizitzan oinarritutako istorio interaktibo xume bat, gorputz-atalei buruz ikasteko.

13,60€



NANE ETA NUNO. ANIMALIAK ZENBATZEN

Nane eta Nuno saltoka doaz zelaian barrena poz-pozik. Bertan, animalia asko ikusiko dituzte eta haiek zenbatzen arituko dira. Zenbatuko al duzu Nane eta Nunorekin? Animaliei eta zenbatzeari buruzko istorio alai bat. Hizkuntza garatzen laguntzeko.

13,60€



HIRU SAGUTXO ETA KATU BAT

Begira, hiru sagu txiki! Ez dira katuaren beldur. Saguetako batek Leun du izena. Ikusten duzu? Ferekatu egin dezakezu. Izutzen baduzu, zuloan sartuko da.

14,90€



BIDEAN

"Nire etxeko bidea da guztietan ederrena. Egunerok aurkitzen dut zerbait berria". Sorpresaz eta kolorez betetako kartoizko liburua etxeko txikientzat

11,75€



ZER IKUSTEN DUZU?

Begiratu arretaz zure ingurura... Zer ikusten duzu etxean? Zer dago lorategian eta baratzean? Zer animalia eta ibilgailu ezagutzen dituzu? Hitzak ikastea oso dibertigarria da irudi ezaguterrazek hornitutako liburu honekin.


15,30€



NIRE LEHENENGO 100 HITZ

Eta elkarrekin lehenengo hitzak ikasiko bagenitu? Liburu honetako ilustrazio dibertigarri eta ezaguterrazek haurrari bere hiztegia modu erakargarri batean ikasten lagunduko diote. Jolastu ahal ikasiz.

11,70€



EZETZ HARRAPATU

Harrapatuko al du kameleoia marigorringoa? Eta matxinsaltoa? Eta beldarra?... Eta zuk, aurkituko al dituzu? Kartoizko liburu jostagarri honekin primeran pasako dute haurrek koloreak, zenbakiak eta animaliak deskubritzen dituzten bitartean.

14,90€



ESKULARRU GALDUA

Basoko animaliek egurgileak galdutako eskularrua aurkitu dute. Banan-banan, barruan sartuko dira, hotzetik babesteko. Baina orduan, egurgilea itzuliko da bere eskularrua hartzera eta...

10,60€



NOLA IZAN NAITEKE ATSEGINA BESTEekin?

Zer da besteekin atsegina izatea? Nola izan naiteke atsegina besteekin? Eta besteekin atsegina izatea benetan al da baliagarria gauzak aldatzeko? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko liburu leihatiladun honetan.

14,00€



ZERGATIK HILTZEN DIRA GAUZAK?

Zer gertatzen da norbait hiltzen denean? Egokia al da heriotzaz hitz egitea? Zer egin dezakegu triste egoteari uzteko? Aurkitu erantzunak irudi ederrez beteriko liburu leihatiladun honetan.

14,00€



TOTOTOTO

Mihi puntan hitzak tratbatzen zaizkien haurrak jolastera gonbidatu nahi ditu liburu honek. Koldori hori bera gertatzen zaio Laiarekin jolasten denean, hitzak tratbatzen zaizkiola. Erremedio bila hasiko dira eta aitona Mateok erakutsiko die hitzei musika jarritz ez direla mihian kateatuta geratzen.

9,50€



+3

8 MAGNETIKOAK

8 puzzle, hondo magnetiko bi (logela eta basoa), eta bertan jartzeko 114 hitz magnetiko, letra larri eta xehetz.

5,00€



+3

HITZEN LOTOA

Fruitu eta barazkien irudiak eta izenak lotzen jolastend den lotoa.

5,00€



BASOAN BARNA

Gaztetan ehiztaria izan ondoren, zahartutakoan, argazkilari bihurtutako aitonaren eta bilobaren istorioa da hau, xume bezain dotore kontatuta. Basoak eta bertako bizitzak erakarrita, aitonaren eskutik naturaren lilura ezagutuko du neskatxak.

13,00€



ELURRETAN JOLASTEN

Azeria, sagua, mapatxea eta hontza elurretan jolasean ari dira. Elur-panpina bat egin nahi dute mendi baten gainean. Baina... elur-bola oso astuna da. Lagunduko al diezu elur-bola mendi gainera eramaten? Irudiz betetako liburu interaktibo bat, negua gogoko duten 3 urtetik gorako haurrentzat.


14,25€



TRAKTORETXO NEGUAN

Negua da, eta Traktoretzori ez zaio negua gustatzen. Traktoretzoren lagun berria, antzara, herrialde beroago batera joan da hegan. Traktoretzori aspergarria egiten zaio baserri barruan egotea. Baina egin al daiteke gauza dibertigarriak neguan?

14,25€



TRAKTORETXO BELDUR DA

Traktoretz maldan beheara joan da aitarekin, baina irrist egin eta lokatzetara erori da. Eta orain Traktoretz beldur da, eta ez du aletegitik atera nahi, euria ari duen bitartean. Baina halako batean, Lilik Traktoretzoren laguntza behar du, berehala gainera...

14,25€



MUNSTROEK ERE GELA TXUKUNTZEN DUTE!

Munstroek ere gela txukundu behar dute! Ez didazu sinisten? Ireki liburu hau eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion munstro zabar txiki bati... Ez dituzu zure jostailuak berriro botata utziko!


12,25€



MUNSTROEK ERE HORTZAK GARBITZEN DITUZTE!

Munstroek ere hortzak garbitzen dituzte! Ez didazu sinisten? Zabaldu liburu hau, eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion hortzak garbitu nahi ez dituen haur bati. Hobe duzu kontuz ibili... munstro beldurgarriak aurki ditzakezu eta.


12,25€



PINTTO ETA DISKO MUSIKA

Pinttok disko musikako dantza-lehiaketa batean parte hartu behar du New Yorken. Erritmo azkarrak eta janzkera zoroak: ziurtatuta daukazu dantzatzeke giro bikaina! Irakurtzeko istorio bat eta 16 doinu entzungai.


14,65€



PINTTO MAITE DUT MUSIKA

Hona hemen Pintto gure lagun musikazalearen oroitzapenen albuma. Irakurri bere koaderno. Pinttok bere bidaian, lagunaren eta abentura musikalen argazkiak itsatsi ditu bertan; bere oroitzapenik ederrenak dira! 12 abesti eta 12 doinu ezusteko.

14,65€



JOKO BAT

Haurren irudimena bizkortzen laguntzen duen kolore eta logika jokoak.


17,50€



IDEIA BAT IZAN DUT

"Baina, zer da ideia bat? Berria da, desberdina, ez du ezeren antzik..."
Ideiak nola sortzen diren ikasiko dugu album polit honetan.


14,30€



KOLOREAK

Koloreen mundu liluragarrian murgildu, eta koloreei buruzko sekretu guztiak ezagutzeko liburua.

13,45€



IKASI IRAKURTZEN OILOAREKIN ETA SAGUAREKIN

Sagua, ustekabean, oiloaren oilategian sartu da eta lagun onak egin dira. Dena den, oiloak nahiago luke oilategitik kanpo zer dagoen ikusi... Hori dela eta, ihes egiteko plan bat prestatuko dute.

15,75€



+6

UZTA BATZERA

Jolas kooperatiboa. Lortuko al dute baserritarrek uzta batzea, auzolanean eta basurdeak harrapatu baino lehen? Jolasteko arau zehatzak eta ortuarien egutegia aparteko orri batean.

20,00€



+7

BIHURRIKERIAK

Hiru jolas: Elkar ezagutzen dugu? Tabu, Max-Mix (mimika eta kantatu). 60 karta, 1-2-3 dadoa, eta harea-erlojua.

18,00€



+7

IGARRI MIGARRI

Hiru jolas, hiru hizkuntzatan: ahoz azaldu, mimika egin, eta marraztu (60 karta, dadoa, eta harea-erlojua).

18,00€



+6

LETRAK HITZ

Hiru jolas: hitza igarri, parez aurkitu, eta istoriotxoa asmatu (60 karta).

18,00€



ANIMALIEN LIBURU HANDIA

Liburu ikusgarri honen egileek animalien bizimoduak aztertu dituzte, mundua ikusteko dituzten erak, bost zentzumenetan eta beste hainbat ezaugarritan oinarrituta. Liburuak 50 animazio baino gehiago ditu gainera.

21,50€



ZAINDU DEZAGUN GURE PLANETA

Lurra da gure planeta bakarra, baina orain arte ez dugu oso ondo zaindu. Ireki liburua, altxatu leihatilak eta ikusi zer ez doan ondo eta nola konpon ditzakegun gauzak: murriztu eta berrerabili, zaindu erleak, bildu zaborra, erosi tokikoa...

12,50€



PLASTIKO-ZOPA

Klimaren lagunak hondartzara joan dira egun-pasa, eguzkiaz eta itsasoaz gozatzen. Igela uretan murgildu da, eta ur-azalera irten denean, plastikozko poltsa bat du buruan. Baina plastikozko poltsa ez da uretan flotatzen ari den gauza bakarra. Zergatik dago hainbeste plastiko itsasoan?

14,60 €



BAI ONDO ILUNPEAN!

Klimaren lagunak kanpatzera joan dira eta izarrak ikusi nahi dituzte. Baina azeriak ez du ondo lo egin. Hontzak dioenez, inguruko argi guztiengatik gertatu zaio hori. Argia ona da, energia ematen baitigu, baina iluntasuna ere behar dugu. Eta batzuetan, ilunpean argitan baino gehiago ikus dezakegu...

14,60€



ALT XORRAREN BILA!
(AUDIOAK QR KODEAN)

Igo autobusera eta etorri gurekin altxorraren bila, ea nolakoa izanen den! Istorioa bizitzeak aukera emanen dio haurrari bere sentsazioak entzuteko, tentsioak kanporatzeko, hatsa hartzen ikasteko...

12,50€



ITSASO ZABALERA!
(+CD AUDIOA)

Igo itsasontzira eta etorri gurekin itsaso zabalera, ea zer aurkitzen dugun oraingoan! Istorioa bizitzeak aukera emanen dio haurrari, bere gorputza entzuteko, konfiantza indartzeko, lasaitzeko...

12,50€



KATTA ADARBAKARRA

Katta eta Sare botika baten bila abiatu dira gauean, Greta gaixo dagoelako. Oso botika berezia da, adarbakarrarena. Topatuko ote dute basoan?

8,25€



KATTA MUSIKAZALEAK

Katta eta lagunek Bitxi's Beach-eko kontzertuan hartuko dute parte, bakoitzak bere instrumentuarekin. Giro aparta dago, baina egun beroak arriskutsuak izan daitezke...


8,25€



ENIGMAK, ZIENTZIA

Izan zaitez jakinguratsua, egin galderak, probatu eta frogatu... Zientzialarien gisa jokatu! Egoera «misteriotsu» guztiak liburuaren amaieran azaltzen diren printzipioetan oinarritzen dira. Horiekin batera, zenbait esperimentu ere proposatzen dizkizugu.

18,95€



ENIGMAK, MISTERIOA

Gozta ezazu enigma sorta hau argituz, pentsatzeko bi modu desberdin praktikan jarrita: enigma batzuk logikaren bidez ebatziko dituzu; beste batzuk, irudimenaren bidez.

18,95€



IZARRAK ETA PLANETAK

Nola jaiotzen dira izarrak? Zer eguraldi egingo ote du Jupiter planeta erraldoian? Liburu honi esker, Lurrari buruzko informazioa jaso, eta eguzkiari, izarrei eta Ilargiari buruz ere, gehiago ikasiko duzu.

20,25€




ESPAZIO-ONTZIA

Sidek bere bizitza aldatuko duen aurkikuntza bat egingo du. Espazioan barrena bidaiatuko du espazio-ontzi batean, gizadiarentzat bizileku berri bat aurkitzeko asmoz. Lortuko al du misio zail hori betetzea?

17,95€


**EUSKADI
SARIA
2021**



HALTZAREN MUINOA

Arbola bera mintzo zaigu liburu honetan, bera bizi den muintotik ikusten eta entzuten dituenak kontatuz. Egun batean, uholde izugarri batek errotik aterako du zuhaitza, eta ibaian behera eraman. Urak, bere herioan, beste hainbat gauzaki eta izaki daramatza, eta haltzak, larriturik eta izuturik, horren guztiaren berri ematen digu, itsasora bidean doazela. Haltzaren ibilerak zertan amaituko ote dira?


13,00€



BULLYING-AREN AURKAKO TALDEA

Daveren taldearengandik bullyinga jasaten hasitakoan, Jake, Ravi eta Tobyk talde bat sortuko dute: BAT, Bullyingaren Aurkako Taldea. Ruthek taldean sartzeko gonbita jasoko du, baina ez du nahi izango taldeko partaide izan... bullyinga jasan arte.

12,65€



ZIBERBULLYING-AREN AURKA

Udako oporraldi luzearen ostean, eskolak diru arazoak medio, ez ditu ikasturte berrirako atea irekiko. BAT taldekoek, hasieran, telefonoei esker eutsiko diote elkarren arteko harremanari. Gero, ordea, mezu beldurgarriak iritsiko dira.

12,65€



BAT PARTIDA HANDIA

Kirolean, kontua ez da irabaztea edo galtzea, nola jokatzeko duzun baizik. Baina, irabaztea ederra da. Futboleko jokatzeko, esate baterako, dibertigarria izan daiteke, baina taldekideren batek partida bullyinga egiteko baliatzen badu, zer egin? BAT kideak batuko ote dira partida handia irabazteko?.

12,65€



EZ DAKIT MARRAZTEN

Zeure buruari behin baino gehiagotan esango zenion, beharbada, ".... ez dakit marrazten!". Horixe bera gertatzen zaio istorio honetako protagonistari. Hartu arkatza eskuan eta hasi jolasean... ikusiko duzu zer gertatzen den!

13,50€



HILI

Heriotza du hizpide. "Adin batetik aurrera, hil egingo garela ulertzen dugu, ulertzen saiatzen gara", horixe da proiektuaren abiapuntuko hausnarketa. "Hilda egotea zer den ulertzen saiatzen da haurra, eta ihes egiten dio zerbaitek"; liburuaren ekarpena, ordea, ez dago haurrei mugatua, heriotzaren inguruko galdera-erantzunak ez direlako inoiz erabakita geratzen.

14,00 €



UTIKAN, BIRUSA!

Noak eta Leak, gainerako haurrek bezala, Koronabirusaren krisiak ekarritako bizimodu berrira egokitu behar izan dute: itxialdira lehenengo, ez guztiz ohiko bizimodura ondoren.


8,85€



MOZORRO ETA KOLORE FESTA

Noa eta Lea ahizpek, beren lagunekin batera, auzoko inauterietako giroa ezagutuko dute. Nahiko lan izango dute mozorroak aukeratzeko. Bigarren istorioan, berriz, auzoko kaleak marraztuko dituzte.

8,85€



NIRE MUNDU TXIKIA

Zure begiek erakusten dizutena baino are zirrargarriagoa da mundua. Guretzat ikusezinak diren arren, izaki bizidun nimoak daude nonahi. Zure gorputzean milaka milioi bakterio bizi dira, eta funtsezkoak dira zure osasunerako.

15,50€



NOLAKOA DA ZURE GARUNA?

Zure garuna miresgarria da eta hamaika funtzio betetzen ditu, horietako asko aldi berean. Ireki liburu eder hau garunaren barrena bidaia bat egiteko.


14,50€



ZTIM JARDUERAK

ZTIM (STEM) arloko gaiei buruzko jakin-mina sortuko die haurrei. Ikasle txikiek hainbat gauza ikasiko dituzte beren inguruko munduari buruz, eta agian, egunen batean beren kabuz asmakizunen bat egiteko inspirazioa ere emango die.

15,25€



ZATIKIAK ETA ZENBAKI DEZIMALDUNAK

Ireki leihatilak eta ezagutu zatikiak, dezimaldunak eta ehunekoak: zer diren eta nola erabili.


13,75€



HEGAZTIAK

Ezagutza-karta hauekin 30 hegazti ezagutu ahal izango dituzu. Karteren aurrealdean, hegazti desberdinak daude, eta atzealdean, hegaztiei buruzko datuak eta xehetasunak betetako irudiak.

7,90€



ZOMORROAK

Ezagutza-karta hauekin 30 zomorro arrunt ezagutu ahal izango dituzu. Karteren aurrealdean, zomorro desberdinak daude, eta atzealdean, zomorroei buruzko datuak eta xehetasunak betetako irudiak.

7,90€



EVEREST

Munduan bada hazten ari den mendi bat. Lurreko tokirik altuena da, alpinista abenturazaleen erronka gorena, *Sagarmatha* zeruko jainkosaren irudi izugarri garaia... Ongi etorri Everest-era!

15,90€



100 KONTU PLANETA SALBATZEKO

Planeta salbatzeko burutu ditzakegun hainbat ekimen jasotzen ditu. Ba al zenekien zientzialariek artilezko jertseak egiten dituztela pinguinoak salbatzeko? Eta hazi banku batek laboreak klima-krisitik babesten dituela? Pertsonak bezala tratatzen baditugu, jaguarrak salbatu ditzakegula, ura aurrezten dela hanburgesa gutxiago janda?

14,65€



100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO GIZA GORPUTZA

Giza gorputzaren funtzionamendua hobeto ulertzeko tresna bikaina etxeko gaztetxoei zuzenduta. Eta zergatik ez, giza gorputzaren inguruko jakinmina asetu nahi duten helduentzat ere bai.

14,65€



100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO JANARIA

Janariaren gaia hobeto ulertzeko tresna bikaina etxeko gaztetxoei zuzenduta. Eta zergatik ez, janariaren inguruko jakinmina asetu nahi duten helduentzat ere bai.

14,65€



100 KONTU ONDO EZAGUTZEKO LUR PLANETA

Ba al zenekien kamioi bat betetzeko adina plastiko botatzen dugula minuturo itsasoan? Lurra usaintsuagoa dela euri-zaparraden ondoren? Edota Atacamako basamortuak Marte aztertzen laguntzen duela?

14,65€



EGUZKIA GOSALDU DUT

Inoiz pentsatu duzu nondik datozen gosaritan jaten ditugun zerealak? Ba al zenekien zure zapaten zolako goma zuhaitz batetik ateratzen dela? Ilustrazio ederrez jantzitako naturako gertaeren bilduma honetan, gure bizitzan nonahi presente dauden landareak goreski nahi dira.


16,70€



ERLEAK ETA LUR-ZIZAREAK

Erleak eta lur-zizareak nahitaezkoak dira izadiarentzat, bioaniztasunarentzat eta gizateriarentzat. Ezagutu, hobeto babesteko. Gure etorkizuna dira. Irakurlea erleen etxera eta lur-zizareen tuneletara sartuko da ilustrazio bikainei esker, izadiko heroi horien bizimodua hurbilgotik ikusteko.

16,00€



NI, PERTSONA

Ikus-filosofia haurrentzat

(Ireki- Begiratu-Pentsatu)

Pentsamendu kritiko eta independentea modu jostagarri eta erakargarrian sustatzeko liburu jokoa. 14 kartulina eta 100 galderatik gora gaiak hausnarketa aberatsa pizteko, bakarka zein taldean.

18,50€



MUNDU KRUDELA

Ikus-filosofia haurrentzat

(Ireki- Begiratu-Pentsatu)

Pentsamendu kritiko eta independentea modu jostagarri eta erakargarrian sustatzeko liburu jokoa. 14 kartulina eta 100 galderatik gora gaiak hausnarketa aberatsa pizteko, bakarka zein taldean.

18,50€



EINSTEIN

Albert Einsteinen teoriak garaiko zientzialariak liluratu zituen, eta denen ahotan jarri zuen fisika. Haren pentsamenduari esker, jauzi handi bat egin zuen zientziak: jauzi kuantikoa.

12,50€



MARIE CURIE

Bi nobel sari irabazi zituen emakume zientzialari bakarraren bizitza zirraragarria. Berak beti ulertu zuen zientzia mundua ezagutzeko eta gizadiari laguntzeko tresna gisa.

12,50€



NEWTON

Fisika berri bati atea ireki zioten bere teoriak, lege unibertsal bakar baten bidez azalduz planeten mugimendua ez ezik objektu guztiena ere.

12,50€



GALILEO

Egin zituen aurkikuntzekin, zalantzan jarri zuen bere garaiko zientziaren mundua. Izan ere, mundua aldatuko zuen mezu bat ekarri zuen.

12,50€



DARWIN

Komiki honetan ikusiko duzu naturalista bat nola jaiotzen den. Natura behatzeko eta ezagutzeko zuen pasioak munduan zehar ibiltzera bultzatu zuen. Eta, gainera, teoria baten bilakaera ezagutuko duzu.


12,50€



ARISTOTELES

Gaztetatik jakintzaren alderdi guztiak ezagutu nahi zituen, giza-jokabidea, politika eta etika, zein naturan ikusten zuen guztia.

12,50€



HIPATIA

Hipatia matematikari aparta eta filosofo grinatsua izan zen, eta bere lanei esker matematika eta astronomia eguneratu eta berrikusi ziren.

12,50€



ADA LOVELACE

Bere matematika ezagutzei eta adimen sortzaileari esker algoritmo bat idatzi zuen, askorentzat historiako lehen programa informatikoa izan zena.

12,50€



MEMORIAREN EHIZA

Istorio hau gertatu izango zen, akaso, Ekaingo kobazuloan, orain dela 15.000 urte. Eta hau izan daiteke, euskaldunon historian, errinzeroaren lehenengo ehizari buruzko ipuina.

9,25€



ATZAPARRA ZUBIAN

Ipuin honetan kontatzen da, erromatarrek ez ezik, lamiak ere zubigile apartak izan direla gurean.

9,25€



HAIZEAK ERAMAN ZUEN MAPA

824. urterako musulmanek eraikia zuten Tuter a ingurutzen zuen harresia.

9,25€



GURARIEN HARRIA

Gasteizen, XIV. mendean, lanbide bakoitzeko gremioak leku berezia zuen.

9,25€



LAUROGEI AMONEN ALTXORRA

Zugarramurdiko kobazuloetan gertaturiko istorio ikaragarriak etorri zaizkigu XVI. mendean geroztik; baita sorgintzat hartuak izan ziren emakumezkoen maitasun istorio ederrak ere.

9,25€



BAIONA TTIPIKO PIRATAK

Baionan, 1600. urteko egun batean, ustekabeen gurutzatu ziren Parisko gorteko dama pinpirin batzuen eta pirata abenturazale batzuen istorioa.

9,25€



ZAZPI KALEETAKO ESKOLA

XIX. mendearen amaieran, abertzaletasunaren kontzientzia pizten ari den urteetan, Bilbo hiri modernoa bihurtzen ari da.

9,25€



IKASTOLA ARMAIRU BARRUAN

Frankismoak belztu zuen urte luzeetan Donostiako bizimodua. Amona Anderek aurreko garaietara bueltatu nahi du, haurrei eskola ematera.

9,25€



MARTXA ETA BORROKA!

Joan den mendeko 80ko hamarkadako bizipen gazi-gozaak gordeak daude askoren oroimenean.

9,25€



LUR ETA AMETS HERRIAREN HISTORIA. EZAGUTZA LIBURUA

Lurraren sorreratik bertatik abiatuta, gaur arteko historiaren kronika.

35,00€



EZAGUTU EUSKAL HERRIAREN HISTORIA. MAHAI JOKOA

Galdera-erantzunen bidez, jokalaria Euskal Herriaren historian murgilaraztea du helburu. 1.500 galdera, historiako bost aro nagusi ardatz hartuta: Historiaurrea, Antzinaroa, Erdi Aroa, Aro Modernoa eta Aro Garaikidea.

29,50€

XABIROI KOMIKIAK



ARRANOTXU

Ados, superheroiengana joko luke jenderik gehienak arazo korapilatsurik balu, baina noren atea jotzen dute gero superheroi horiek, kozinatzen hasi, eta gatzik gabe geratu direla konturatzean?

15,00€



SASI ARTEAN ELGETA

Elgetaren bizitza, musika musikoen aurka, Elgetaren bizitza, 1931-36ko errepublika, Elgetaren bizitza, maitasun fantastikoa, Elgetaren bizitza, gerra eta kartzela, Elgetaren bizitza, 27 urteko diktadura, Elgetaren bizitza, bakardadea nahiago...


15,00€



BASOLATIK BERRI ONIK EZ

Ez berri gehiagorik ekarri, mezulari, jakin behar baitut neure begiez. Basolan zer berri den...

15,00€



HAUR BESOETAKOA PARISTIK DATORREN ARTISTA

Ihes egitea zaila bada, are zailagoa itzultzea. Horretan dabil HB. Baina oraingo honetan Beste Aldetik dator mehatxua: AIMAK saldoka datoz ihesi haurren mundura.

14,00€



HAUR BESOETAKOA LITXARRERIEN JAUNA

Gurearen oihartzunak dituen haurren unibertso batean, Haur Besoetakoa litxarrerien mafiaren erabateko kontrola dauka, edo hala uste du berak behintzat...

13,00€



AMETS ALOKATUAK

"Etorkizun hurbil batean, jendeak bere gau horretako ametsak alokatuko ditu, orain hoteleko gela bat hartzen duenak bezala..."

15,00€



SANTA FAMILIA

Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik. Norak, ordea, arau horri ihes egingo dio. Sekretu bat gordetzen du. Bere sekretua.

14,00€



KORTSARIOEN OSTATUA

Maiz gertatu bezala, kortsario izatea ez da lehen aukera, bakarra baizik.

13,00€




MUSEO BILDUMA

Museoak leku guztietan ugalduta diren sasoian, hauen gaineko begirada kritikoa da Museo Bilduma, eta, oroz gain, sormenari eskainitako gorazarrea, zientzia fikzioaren klasikoei egindako keinu ttipiz bete.

13,00€

XABIROI KOMIKIAK



IRATI

Mitologia eta abentura uztartzen dituen istorio zirraragarria.

12,00€



PIZTIA OTZANAK

Genero beltzekoa, intriga eta misterioa ziurtatuta daude.

12,00€



TELEATOI KALABAZA HALUZINOGENOAK

Zientzia-fikziozko abentura, umore galaktikoarekin.

12,00€



AZKEN GARAIPENA

Naziek gerra irabazi ondorengo etorkizun batean, hilketa arraro bat ikertzen dute bi poliziaek. Fikzioa eta intriga.

12,00€



ANUBIS 3.0

Egiptoko mitologiaren berrirakurketa futurista, intrigaz betetako istorio batean.

12,00€



ZEBRA EFEKTUA

Bi hiltzaile enkargu bat burutzear dira New Orleans-en, baina bezperan metamorfosi arraro bat gertatuko da. Intriga eta fantasia.

12,00€

Eskaera egiteko
943 210 965
elkar@elkar.eus

elkar

ikas^{elkar}



ikastolenelkartea

